



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

16347

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten legebiltzar-taldeek, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondoko ERDIBIDEKO ZUZENKETA egiten diote Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak osoko bilkuran eztabaidatzeko aurkeztutako legez besteko proposamenari, Fagor Etxetresnak enpresako kooperatibista hartzekodunen arazoei buruz (10\11\02\01\0355).

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei eskatzen die jarrai dezatela MCCrekin hitz egiten, hartara laguntzeko ahalik eta irtenbiderik onena bilatzen Fagor Etxetresnak eta Edesa enpresen hartzekodunen konkurtsoa deklaratzearen ondorioz sorturiko arazo bakoitzari, kooperatibista hartzekodun guztien arazoa barne.

Halaber, Mondragon Korporazioari eskatzen dio bila dezala, kooperatibismoaren markoaren eta mugen barruan, arazo horrentzako irtenbiderik onena, kontuan hartuz mugimendu kooperatibista beti ezaugarritu duten elkartasun-printzipioak.

Horrekin bat etorrita, Eusko Jaurlaritzak, iragarria duen kooperatiben Euskal Autonomia Erkidegoko lege-proiektua egitean, zenbait prozedura arautuko ditu kontrol eta berme sendoak ezarriko dituztenak langileek sektoreko enpresen finantziazioan duten partaidetzan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 5a

**EUSKO ABERTZALEAK
EUSKAL SOZIALISTAK
EUSKAL TALDE POPULARRA
MISTOA-UPyD**

